



# EHGE-ren Aitatasunagatiko Lizentziaren gaineko erabakia

Iraileko gidariaren alean esan genuen bezala, Enpresak ez zuen onartzen gure hitzarmeneko aitatasunagatiko lizentziaren erregulazioa, hau dela eta bi langileek salaketa jarrita zutela epaitegietan. Baita ere zenekiten Gasteizko epaitegiek bi sententzia desberdin emanda gero goi maiako epaitegiaren ebazpenaren zain ginela. Sententzia hori kaleratu dute eta badakigu enpresako hitzarmenak ematen dituen 10 egunak eta baita ere berdintasunerako legeak emandako beste 13ak, hartzeko aukera izango dutela garai honetan aitak izan diren guztiok.

Esk-Tuvisak argi zeukan hori horrela izango zela eta gure web gunean igotako hitzarmenean guzti hori ondo azalduta zegoen berdintasunerako legea agertu zenetik.

Ez litzake gaizki etorriko Enpresa batzordeko presidentearen azalpen bat, jakiteko zergatik defendatzen zuen Enpresaren postura.

Dirudienez aurretik ukatutako egun guzti horiek emango dituztela onartu du Enpresak

